

Donostia “Klubaren iragana, oraina eta geroa batu nahi ditu museo txuri-urdinak”

Museoen eguna aukeratu zuen Realak mendeurreneko museoaren proiektua aurkezteko. Anoetan bertan izan zen ekitaldia, museoak jarriko duten tokiaren inguruan. Zehazki, 100 egun falta ziren atzo real100 museoaren irekiera eguna iristeko, abuztuaren 26an zabalduko baitute. Agertu zutenez, museoak bera izango da proiektuaren mamia, baina hurbiltzen direnek estadioa barrutik ezagutzeko aukera izango dute. Prentsa bulegoan eta palkoan egongo dira bisitariak eta jokalarien aldageletatik berdegunera irtengo dira. Museoaren ondoan, denda berria zabalduko dute, 100 metro koadro ingurukoa, eta bertan bukatuko da ibilbidea.

Museoak zehazki 475 metro koadro izango ditu. Ez da oso handia izango, ezta luxuzkoa ere, baina oroimena eta sentimendua bilduko ditu, azaldu zuen aurkezpeneko arduradunak. Hala, helburua Realaren iragana, oraina eta geroa biltzea izango dela azaldu zuten. Gaur egungo eta etorkizuneko realzaleak elkartu nahi dituztelako. Klubaren historia osatzeko, trofeoak, irudiak eta bestelakoak jarriko dituzte ikusgai.

Anoetan egon den edonork ikus dezake dagoeneko museoak egiteko lanak hasi direla. Estadioak Madril hiribidearen aurrean duen aldean jarriko dute erakusketa, Euskotreneko geltokiaren ondoan. Bere eskuinetara, denda berria egongo da, eskailerapean. Izaskun Larzabalek proiektuaren nondik norakoak azaldu zituen. Bere hitzetan, ahalik eta erakusketa dinamikoena egiten saiatuko dira. Azaldu zuenez, guztira, 158.000 euroko gastua izango du lokala atontzeak. Dendak, berriz, 98.000 euroko gastua izango du.

Aurkezpenean izan ziren Odon Elorza alkatea, Iñaki Galdos kirol diputatua eta Jokin Aperribay Realeko presidentea. Bai Elorzak bai Aperribayk Munduko futbol Txapelketa Anoetan jokatzea espero dutela aipatu zuten. Hala ere, Aperribayk taldea Lehen Mailan egoteak duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen.

Gipuzkoako hiru enpresek babestuko dute museoak: Vascoteknia, Indak eta Algecosa, hain zuzen ere. Realeko presidentek plaka oroigarri bana eman zien atzoko agerraldian enpresa bakoitzeko buruari.

Estitxu zabala